



bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

Diligencia: Para hacer constar que el  
presente documento ha sido aprobado  
por el Consejo General del Consorcio de  
Transportes de Bizkaia de fecha:  
..... 2009.120. otsaCareu 179

Eginbidea: Zera jasota gera dadin  
ondoren aipatzen den datan, Bizkaiko  
Garraio Partzuergoaren Kontseilu  
Nagusiek agiri hau onartu duela:

Doy fe.

Fede ematen dut.

Data/Fecha: Bilbao (n), 2009.120. otsaCareu 179  
Idazkari Nagusia/El secretario general



## CARÁTULA DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

### CONTRATO DE SERVICIO

#### A.- Objeto del Contrato

Contratación para la implantación y explotación de una red de comercialización para la venta, recaudación, recarga atendida, almacenaje y distribución de la tarjeta sin contacto Barik.

El licitador deberá ofertar todos los servicios que comprenden este contrato.

CPV Reglamento: 636.00000-5

#### B.- Departamento Promotor

Dirección Gerencia.

#### C.- Órgano de contratación

Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

#### D.- Presupuesto de licitación

Los ingresos a percibir por el adjudicatario de este servicio dependerán principalmente del volumen de ventas efectivo y de los precios unitarios para cada concepto tal como se detalla en el pliego de prescripciones técnicas y que se resumen a continuación.

##### - Venta de tarjeta anónima.

Se establece una comisión máxima del 5% por este concepto.

##### - Ingresos por la recarga atendida de títulos en las tarjetas. El adjudicatario percibirá una

## ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUAREN AZALA

### ZERBITZU KONTRATUA

#### A.- Kontratuaren xedea

Kontaktu gabeko Barik txartela saldu, bildu, birkargatu, biltegiratu eta banatzeko merkataritz-aarea ezarri eta ustiatzeko kontrataazioa.

Lizitzaileak kontratu honetan jasotzen diren zerbitzu guztiak eskaini beharko ditu.

CPV Araudia: 636.00000-5

#### B.- Sustatzen duen Saila

Zuzendaritza Nagusia.

#### C.- Kontratazio-organoa

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusia.

#### D.- Lizitazio aurrekontua

Zerbitzu honen adjudikazio-hartzaileak izango dituen diru-sarrerak benetako salmenta-bolumenaren eta kontzeptu bakoitzaren unitate-prezioen araberakoak izango dira; hala dago zehaztuta ondoren laburten den baldintza teknikoen pleguan.

##### - Txartel anonimoaren salmenta.

Kontzeptu honengatik gehienez %5eko komisioa ezartzen da.

##### - Txarteletan tituluak birkargatzeagatiko diru-sarrerak. Tituluak birkargatzen dituen



comisión máxima por cada recarga atendida de títulos, que se limita en función de volúmenes de venta siendo la comisión máxima del 3%.

- Ingresos por almacenaje y distribución. Se establece un precio mensual de 4.800€ (IVA excluido), 5.568€ (IVA incluido) con 10 entregas mensuales en el precio, cualquier entrega adicional tendrá un precio unitario máximo de 27€ (IVA incluido).

- Ingresos por equipamiento, instalación y puesta en operación, funcionamiento y mantenimiento de la red de cabinas. Se establece un precio mensual máximo de 35€ (IVA excluido) y 40,6€ (IVA incluido) por cada punto de venta.

#### E.- Anualidades

#### F.- Consignación Presupuestaria

Tramitación anticipada. La adjudicación queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio 2010.

#### G.- Tramitación

Ordinaria.

#### H.- Procedimiento de Adjudicación

Abierto.

bakoitzean komisio bat jasoko du adjudikazio-hartzaleak; komisio hori mugatu egingo da salmenta-bolumenaren arabera eta gehienez %3koa izango da.

- Biltegiratze eta banatzeagatiko dirusarrerak.

Hileko prezio bat ezartzen da: 4.800€ (BEZ kanpo) eta 5.568€ (BEZ barne). Prezio horretan hilean 10 entrega izango dira; hortik gorako edozein entrega gehigarrik gehienezko unitate-prezioa izango du: 27€ (BEZ barne).

- Kabina-sarea ekipatu, instalatu, abian jarri, funtzionatzen eduki eta mantentzeagatiko diru-sarrerak.

Hileko gehienezko prezio bat ezartzen da salmenta-puntu bakoitzeko: 35€ (BEZ kanpo) eta 40,6€ (BEZ barne).

#### E.- Urterokoak

#### F.- Aurrekontuaren kontsignazioa.

Tramitazio aurreratua. Adjudikazioa honen araberakoa izango da: aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotea, 2010eko ekitaldiko kontratuaren ondoriozko obligazioak finantzatzeko.

#### G.- Tramitazioa

Arrunta.

#### H.- Adjudikazio prozedura

Irekia.



## I.- Criterios de Adjudicación

### 1º.- Valoración del servicio ofertado (Valoración de 0 a 40 puntos).

El licitador deberá ofertar todos los servicios que comprenden este contrato.

Se valorará la estructura de red de comercialización propuesta por encima de la red mínima exigida en los pliegos de especificaciones.

- El licitador deberá presentar detalle de la red de ventas, número de puntos de venta, ubicación de los mismos, condiciones del punto de venta (establecimiento, kioskos, locales abiertos, cerrados,...) su accesibilidad, horario y calendarios de comerciales.
- Se valorará el planteamiento de servicio realizado tanto para el CTB como de soporte a los operadores (Red de cabinas).
- Se valorarán las garantías, medios y recursos que el licitador ofrece para el desarrollo del contrato y su adecuación a las necesidades del Consorcio de Transportes de Bizkaia, especialmente las garantías que el licitador aporte para asegurar el ingreso puntual e íntegro de la recaudación obtenida, incluso en situaciones de morosidad de algunos puntos de la red.
- Se valorarán los recursos tanto humanos como materiales que el licitador ponga a disposición del

## I.- Adjudikazio irizpideak

### 1.- Eskainitako zerbitzuaren balorazioa (Otik 40 puntu arteko balorazioa).

Lizitzaileak kontratu honetan jasotzen diren zerbitzu guztiak eskaini beharko ditu.

Proposatutako merkataritza-sarearen egitura baldintza pleguetan eskatutako gutxieneko sarearen gainetik egotea baloratuko da.

- Lizitzaileak honako hauen xehetasunak eman beharko ditu: salmenta-sarea, salmenta-puntuen kopurua, horien kokalekua, salmenta-puntuaren baldintzak (establezimendua, kioskoak, lokal irekiak, itxiak...), irisgarritasuna, saltzaileen ordutegia eta egutegia.
- BGPrentzat eta beste eragileen sostengurako egiten den zerbitzu planteamendua baloratuko da (Kabina sarea).
- Lizitzaileak kontratua garatzeko eta Bizkaiko Garraio Partzuegoaren beharretara egokitzeko eskaintzen dituen bermeak, bitartekoak eta baliabideak baloratuko dira; bereziki, egindako diru-bilketa garaiz eta osorik sartuko dela ziurtatzeko ematen diren bermeak, baita sareko puntu batuetan berandutze-egoerak sortzen badira ere.
- Lizitzaileak kontratua gauzatzeko Bizkaiko Garraio Partzuegoaren eskura jartzen dituen giza baliabideak



Consorcio de Transportes de Bizkaia para la ejecución del contrato, con especial mención de los recursos asignados localmente: oficinas, delegaciones,...

- Se valorará el equipo de trabajo asignado a la ejecución del contrato.
- Se valorará la disponibilidad y plazos de respuesta a las distintas peticiones del Consorcio de Transportes y demás agentes participantes en el proyecto Barik.
- Se valorarán aquellos otros aspectos de la estructura del licitador que resulte adecuado para el desarrollo del contrato y que el licitador ponga a disposición del Consorcio sin coste adicional.

2º.- Propuesta económica formulada  
Valoración de 0 a 40 puntos.

El licitador deberá aportar la correcta y completa redacción con clara descripción y desglose de los precios unitarios indicando la retribución al canal de venta en los conceptos que proceda.

eta baliabide materialak baloratuko dira, eta bereziki, toki bakoitzean jartzen diren baliabideak: bulegoak, ordezkaritzak...

- Kontrata burutzeko jartzen den lantaldea baloratuko da.
- Garraio Partzuergoaren eta Barik proiektuan parte hartzen duten gainerako eragileen eskariei erantzuteko eskuragarritasuna eta epeak baloratuko dira.
- Lizitzailearen egiturako beste aspektu batzuk ere baloratuko dira, kontratuaren garapenerako egokiak direnak eta lizitzaileak Partzuergo honen eskura jartzen dituenak, kostu gehigarririk gabe.

Eskainitako proposamen ekonomikoa.  
Balorazioa: Otik 40 puntura.

Lizitzaileak zuzen eta osorik idatzita ekarri beharko du eskaintza ekonomikoa, unitate prezioak argi azalduz eta banakatuz, eta garbi adieraziz salmenta-kanalari zenbat ordainduko zaion dagokion kontzeptuetan.



## VALORACIÓN DE LA OFERTA ECONÓMICA ESKAINTZA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

	PUNTUACIÓN MÁXIMA GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
<p><i>Txartelean tituluak birkargatzeko zerbitzua arreta-puntuetan</i></p> <p><i>Salmenta-bolumenen tarte bakoitzak baloratuko da proposamen ekonomikoaren ezarritakoaren arabera.</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Zero puntu (0) gehienezko komisioa berdintzen badu.</li><li>▪ Puntuazio gorena beherapen handiena egiten duen eskaintzari.</li><li>▪ Gainerako eskaintzei dagokien proportzioan emango zaizkie puntuak.</li></ul> <p>-----</p> <p>Servicio de recarga de títulos dentro de la tarjeta en puntos atendidos</p> <p>Se realizará la valoración para cada tramo de volúmenes de ventas según lo establecido en proposición económica.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Cero (0) puntos si iguala la comisión máxima.</li><li>▪ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.</li><li>▪ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente.</li></ul>	17 puntu / puntos
<p><i>Kabina-sareko instalazioa, ekipamendua, mantentze-lana eta tpv. Tpv bakoitzeko prezioa/hileko.</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Zero puntu (0) gehienezko prezioa berdintzen badu.</li><li>▪ Puntuazio gorena beherapen handiena egiten duen eskaintzari.</li><li>▪ Gainerako eskaintzei dagokien proportzioan emango zaizkie puntuak.</li></ul> <p>-----</p> <p>Servicio de instalación, equipamiento, mantenimiento y de tpv en la red de cabinas precio / mensual por cada tpv</p> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Cero (0) puntos si iguala el precio máximo.</li><li>▪ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.</li><li>▪ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente.</li></ul>	7 puntu / puntos



<p><b>Banaketa-kanalari ordaintzekoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ <i>Zero (0) puntu salmenta-puntuari gutxien ordaintzen dionari.</i></li><li>■ <i>Puntuazio gorena salmenta-puntuari gehien ordainduko dionari.</i></li><li>■ <i>Gainerako eskaintzei dagokien proportzioan emango zaizkie puntuak.</i></li></ul> <hr/> <p>Retribución al canal de distribución</p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ Cero (0) puntos al que dé la menor retribución al punto de venta.</li><li>■ Puntuación máxima al que mayor retribución oferte al punto de venta.</li><li>■ Asignación del resto de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente.</li></ul>	<p>7 puntu / puntos</p>
<p><b>Txartel anonimoen salmenta</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ <i>Zero puntu (0) gehienezko komisioa berdintzen badu.</i></li><li>■ <i>Puntuazio gorena beherapen handiena egiten duen eskaintzari.</i></li><li>■ <i>Gainerako eskaintzei dagokien proportzioan emango zaizkie puntuak.</i></li></ul> <hr/> <p>Venta de tarjetas anónimas</p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ Cero (0) puntos si iguala la comisión máxima.</li><li>■ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.</li><li>■ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente.</li></ul>	<p>5 puntu / puntos</p>



<p><i>Biltegiratze eta banaketa zerbitzua</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ <i>Zero puntu (0) gehienezko prezioa berdintzen badu.</i></li><li>■ <i>Puntuazio gorena beherapen handiena egiten duen eskaintzari.</i></li><li>■ <i>Gainerako eskaintzei dagokien proportzioan emango zaizkie puntuak.</i></li></ul> <hr/> <p><b>Servicio de almacenaje y distribución</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>■ Cero (0) puntos si iguala el precio máximo.</li><li>■ Puntuación máxima a la oferta que realice la mayor baja.</li><li>■ Asignación de puntos al resto de las ofertas proporcionalmente.</li></ul>	4 puntu / puntos
--	---------------------

3º.- La calidad y solidez de la proposición técnica presentada por los licitadores  
Valoración de 0 a 20 puntos.

En este apartado se valorará el entendimiento del proyecto su valor técnico, planteamiento y enfoque de ejecución.

- Se valorará el estudio exhaustivo de la solución técnica propuesta, el planteamiento para la incorporación de los nuevos elementos y funcionalidades, comprobando las características técnicas y de funcionamiento propuesto, con referencias concretas a modelos y marcas de aquellos elementos que sean instalados de acuerdo con las especificaciones técnicas.
- Se valorará el contenido de la oferta en cuanto a la descripción de los trabajos de implantación de la red y detalle del programa de trabajos, su

3.- Lizitatzaleek aurkeztutako proposamen teknikoaren kalitatea eta sendotasuna.  
Balorazioa: Otik 20 puntura.

Atal honetan proiektua ulertza eta haren balio teknikoa baloratuko dira, baita planteamientua eta egiteko ikuspegia ere.

- Honakoak baloratuko dira: proposatutako irtenbide teknikoaren azterketa zehatza, elementu eta funtzionalitate berriak sartzeko planteamientua. Proposatutako ezaugarri tekniko eta funtzionamenduzkoak egiaztatuko dira, baldintza teknikoen arabera instalatutako elementuen eredu eta markei erreferentzia eginez.
- Eskaintzaren edukia baloratzeko honakoak hartuko dira kontuan: sarea ezartzeko lanen azalpena eta lan-egitarauaren xehetasunak,



coherencia y buen conocimiento de la problemática.

Detalle y planificación de la entrega de la documentación, del plan de mantenimiento tanto de hardware, comunicaciones como de software, plan de formación al punto de venta, información.

- Se valorarán las mejoras propuestas.

**J.- Garantía provisional**

82.200€

**K.- Garantía definitiva**

137.000€

**L.- Revisión de precios**

No procede.

**M.-Autorización de variantes**

No procede.

**N.- Duración del contrato**

4 años desde el lanzamiento de la tarjeta Barik al mercado.

**O.- Opción de prórroga**

Sí, según lo establecido en los Pliegos.  
2 años adicionales.

egitarau horren koherentzia eta arazoen ezagutza.

Honakoen xehetasunak eta plangintza ere baloratuko dira: dokumentazioa ematea; hardwarea, komunikazioak eta softwarea mantentzea; salmenta puntuari eman beharreko prestakuntza, informazioa.

- Proposatutako hobekuntzak baloratuko dira.

**J.- Behin-behineko bermea.**

82.200€

**K.- Behin betiko bermea.**

137.000€

**L.- Prezioak berrikustea**

Ez dagokio.

**M.- Aldaerak baimentzea**

Ez dagokio.

**N.- Kontratuaren iraupena**

4 urte Barik txartela merkatura ateratzen denetik.

**O.- Luzatzeko aukera**

Bai, Pleguetan ezarritakoaren arabera.  
2 urte gehigarri.



**P.- Plazo de Garantía**

No procede.

**Q.- Plazo de presentación de proposiciones**

Según fecha indicada en los boletines.

**R.- Lugar de presentación de las proposiciones**

Consorcio de Transportes de Bizkaia, Ugasko bidea, nº5-bis, primera planta, 48014-Bilbao

**S.- Gastos de publicidad**

Si.

**T.- Medios de acreditación de la solvencia**

1.- Declaraciones apropiadas de entidades financieras o en su caso, justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales.

2.- Relación de los principales servicios efectuados durante los tres últimos años, indicando su importe, fechas y destinatario público o privado de los mismos. Los servicios efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público o cuando el destinatario sea un comprador privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario.

3.- Se considerará como requisito mínimo de la solvencia para la prestación del servicio la oferta de una red de puntos de venta mínima

**P.- Berme epea**

Ez dagokio.

**Q.- Proposamenak aurkezteko epea**

Buletinetan adierazten den dataren arabera.

**R.- Proposamenak aurkezteko lekua**

Bizkaiko Garraio Partzuergoa. Ugasko bidea, 5-bis , lehen solairua, 48014 - Bilbo

**S.- Publizitate gastuak**

Bai.

**T.- Kaudimena egiazatzeko moduak**

1.- Finantza-erakundeen adierazpen egokien bidez edo, hala badagokio, arrisku profesionalen kalte-ordaineko aseguruaren frogagiriaz.

2.- Azken hiru urteetan egindako zerbitzuen zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzale publikoa edo pribatua den zehaztuz. Egindako zerbitzuak egiazatzeko, dagokion organo eskudunak eman eta onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzalea sektore publikoko erakundea bada; eta hartzalea erosle pribatua bada, beronek emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena.

3.- Zerbitzua emateko kaudimenaren gutxienezko baldintza izango da salmenta-puntuen sare minimo bat eskaintza,



de acuerdo con lo especificado en el pliego de condiciones técnicas.

**U.- Perfil de Contratante**

[www.cotrabi.com](http://www.cotrabi.com)

**V.- Otras especificaciones**

**1.- Forma de pago:**

Certificaciones mensuales tras el lanzamiento de la tarjeta Barik.

**2.- Seguros:**

El adjudicatario deberá aportar póliza de seguro en los siguientes términos:

Responsabilidad Civil Profesional con un límite no inferior a 300.000 euros con una franquicia máxima de 10.000 euros.

Se incluirá al Consorcio de Transportes de Bizkaia como asegurador adicional, sin perder la condición de tercero.

Póliza de daños para responder del valor nuevo de las tarjetas almacenadas en custodia con un límite no inferior a 300.000€.

**3.-Presentación de la oferta:**

El ofertante deberá presentar su propuesta en soporte papel y CD. Así, en los sobres B y C, además de la documentación en formato papel deberá incluirse un CD contenido único y exclusivamente la documentación correspondiente a dicho sobre.

En caso de discrepancia entre ambos soportes prevalecerá la información de soporte papel.

baldintza teknikoen pleguan zehaztutakoaren arabera.

**U.- Kontratugilearen profila.**

[www.cotrabi.com](http://www.cotrabi.com)

**V.- Beste zehaztapen batzuk**

**1.- Ordaintzeko modua:**

Barik txartela merkaturatu ondoren, hileroko ziurtapenak.

**2.- Aseguruak:**

Adjudikazio-hartzaileak aseguru-poliza aurkeztu beharko du, honakoak ageri direla:

Erantzukizun Zibil Profesionala, 300.000 eurotik gorako muga duena eta gehienez 10.000 euroko frankizia.

Bizkaiko Garraio Partzuergoa gehigarrizko aseguratzale gisa sartuko da, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

Kalteen poliza, zaintzan biltegiratutako txartelen balio berriari erantzuteko, gutxienez 300.000€ko muga izango duena.

**3.-Eskaintza aurkeztea:**

Eskaintza egileak paperean eta CD-an aurkeztu behar ditu bere eskaintza. Era honetan egingo da: B eta C gutunazaletan, dokumentazioa paperean eta CD-an aurkeztuko da, baina CD-an bakarrik sartuko da dagokin gutunazaleko dokumentazioa.

Euskarri bien artean adostasunik ez balego, paperezko euskarrian dagoen informazioak izando du lehentasuna.